



234. zenbakia

· AZAROA 2023 ·

pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria

Olerkia



Joxe Jabier Elizalde

Ihintza dagoenean

Goizeko isiltasunean,
bakarrik,
atsegin dut ibiltzea;
baita ilunabarretan ere
inorekin topatu gabe.
Batzuetan, ordea,
ibilbidean, izorratzeko edo,
norbaitek botatako beira,
sasi zein zikinkeriak
kendu behar izaten ditut.
Haserre, goibel jartzen naiz,
ezin ekidin dut.
Aitzitik, bertzeak bertze
txorien kanteak edota
Jainkoan paxa ikusteak
aski lasaitzen nau,
apur batez behintzat.
Goizeko isiltasunean,
bakarrik,
atsegin dut ibiltzea;
baita ilunabarretan ere
inorekin topatu gabe.

Hautatu

3 hedabide

Komunitate
Helburu
Proiektu
Hizkuntza
Eskualde

bera

Km
komunikazioa

Esan Erran Irratia
107.9 FM



pulunpe

amezti

ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Irantzu, Virginia, Josu, Arantxa, Maika, Itziar, Facebooken parte hartzen duzuenak, banatzaileak, etab... Barka lezaiguzue, aipatu ez zaituztegunok.

EMAILA

pulunpe@gmail.com

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareko taldekideez gain, Txurdan, Denok bat elkarteak, Iosu Alfaro, Patxi Irurzun, Ekaitz Santazilia eta Ricardo Urritzola.

KOORDINATZAILEAK

Garazi Zabaleta eta Itziar Perez

TIRADA

1.700 ale

INPRIMATEGIA

Gertu

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa

AZALEKO ARGAZKIA

Urriaren 7an, Esan Erranen urteurrenarengatik antolatutako bertso saio musikatua. Patxi Oscoz argazkilariak egindako fotografia.

LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira azaroaren 17an bidalia

AURKIBIDEA

04

Gaurko gaia. *Pulunpeko argazki lehiaketa*

07

Ingurumena. *Beste espezietatik ikasi*

08

Kronika. *Denok bat*

10

Gutuna. *Euskara ikasi, eskualdean*

11

Albisteak.

15

Berezia. *Zozketa mundiala*

16

Ekimenak. *Gaitu*

20

Erreportajea. *Udabeko bertso idatziak II*

23

Ardo Frexkoa. *Eritzen ospakizuna*

24

Aspaldiko Kontuak. *Sasturaindarrak Basaburuan*



27

Elikadura. *Hartxidura*

28

Kirola. *Basaburuko II. Enduro lasterketa.*

30

Zer ikusi *amezti.eus-en*

32

Zer irakurri. *Azaroa*

34

Jaiotzak eta heriotzak. *Iraila*



IX. lehiaketan, Lizaso nabarmendu da

Bederatzigarren argazki lehiaketa izan da aurtengoa. Urriaren 26an egin zuen hautaketa epaimahaiak, eta hiru saritik bi Lizasora joan dira, lehenengoa eta bigarrena. Hirugarrena, Arraitza joan da. Denok ere badakite zer den saria jasotzea, aurreko edizioetan jaso baitute bat edo beste.



ALFREDO GARCÍA FALCES LARRAÑETA,

Lizaso - 1. saria



Urtero aurkezten da García-Falces, eta, urteetan, sari ugari jaso ditu. Urte batzuetan jaso gabe egon ondoren, berriz ere lehenengo saria lortu du. Txikitatik aritu da argazkilaritzan, aitaren kamara zaharrekin jolasten eta irudien ehizan.

Argazki berezia da Miresle deitu duzuna. Azaldu iezaguzu pixka bat zer agertzen den.

Miresle izena jarri diot miresmen momentu bat iruditu zitzaidalako. Alegia, argazkian agertzen den pertsona zuhaitza miresten ari baita. Nik ez dut pertsona hori ezagutzen, argazkia horrela topatu nuen, ni haritzari argazkiak ateratzen ari nintzen eta joaten nintzelarik ahotsak entzun nituen. Pertsona hori ardi batzuen

bila zihoan talde batean zegoen, gainontzekoak bidearekin jarraitu zuten baina bera hor gelditu zela ikusi nuen. Nik uste dut zuhaitzarekin mirestuta zegoela eta argazkiak ateratzen hasi zitzaizkion, hau da, nik egindako gauza bera egin zuen. Horregatik, ni ere izan nintekeen pertsona hori, hura nire isla izan zitekeen. Une hori gustatu zitzaidan.

Azken finean, argazkiak ateratzen dituzunean, ikusten ari zaren hori jaso nahi duzu, finkatuta gera dadila, eta miresmenarengatik izaten da.

Bestetik, esan nahi nuen, argazkiak baduela nolabaiteko espiritualtasuna. Eta, lehiaketa honetako irabazleak izandako bi pertsonaren omenaldia izatea





gustatuko litzaidake. Denbora gutxian biak galdu ditugu, gazteak gainera. Izan ere, herritar askok ez dute parte hartzen Pulunpeko argazki lehiaketan, eta hain justu parte hartzen hasiak ziren bi gazte galdu ditugu eskualdean.

Gure eskualde honetako zuhaitz berezia da, ez al da horrela?

Orkinen dagoen haritz bat da, milaka urtekoa. Nafarroako Gobernuak zuhaitz monumental gisa izendatu zuen. Ez daude asko, eta garrantzi handikoa da Orkingoa.



GURUTZ URZELAI IRIBARREN, Lizaso - 2. saria



Gaztetatik erakarri du argazkigintzak. Elkarte batean ere aritu zen eta bertan eta liburuak irakurtzen trebatu zen. Alabak ere afizioa jaso du eta elkarrekin aritzen dira askotan. Pasa den urtean ere jaso zuen saria. Naturaren eta pesten irudiak jasotzea gustatzen zaio gehien.

Bigarren saria eskuratu duzu, zorionak! Espero zenuen?

Alaba, Maider, argazkigintzan aritzen da, eta nik parte hartzera bultzatzen nuen. Berak esan zidan aurten ere lehiaketa izanen zela. Argazki pila bat bildu ditut eta haien artean begiratzen jarri nintzen, eta azkenean aurkeztu nintzen. Baina ez nuen espero, ez! Sorpresa handia izan da.

Miresle izena jarri diozu, zu ere naturaren mireslea bazara nolabait?

Bai, hain zuzen ere argazkigintzari lotu ninduen naturan argazkiak egitea izan zen. Ni Felix Rodriguez de la Fuenteren garaikoa naiz. Berak gizartea animaliekin eta naturarekin begirada berezi bat izatera animatu zuen, ekologismoak toki gutxi zuen garai batetan. Ni ehiztari familia batean hazi naiz, baina ni eta nire anaia bizkia bitxiak omen ginen eta ehizatzaera joan ordez argazkiak egitera joaten ginen. Argazki ehiza egiten genuen.

Gure tradizioa den maiatza azaldu nahi izan duzu argazkian, ezta? Kontatu pixka bat zer ikusi dezakegun argazkian.

Iraizotzera joan nintzen maiatzaren jasotzea ikustera. Jendea lanean ikusi nuen eta indar asko zuen irudia iruditu zitzaidan. Orduan, handik eta hemendik mugitzen hasi nintzen, ikuspuntu hoberearen bila. Irudi polita eta espresiboa nahi nuen, adierazkortasun hori jaso. Eta, horretan nembilela, une batean argazkia nire parean nuela ohartu nintzen: jendea lanean, kontzentratuta, umeak ere bai. Eta atera nuen, mugikorrarekin egin nuen, gainera. Unea izan zela uste dut. Maiatza altxatzen hasi baitziren, eta momentu batean gelditu ziren, indarra hartzeko eta ongi kokatzeko. Denok isil-isilik gelditu ziren. Une horretan izan zen. Orduan, dena den, ez nintzen gehiegi ohartu. Ondoren, argazkiak disko gogorrean ikusten, ikusi nuen.

Argazkilaritza betidanik gustatu zaizu?

18 urte inguru nituela hasi nintzen argazkiak ateratzen. Kamera kaskar batekin hasi nintzen. Ondoren, lanean hasi nintzenean, Canon bat erosi nuen, karretearekin funtzionatzen zuena eta txuri beltzean ateratzen. Kolorea sartu zenean garestitu zen eta diapositibak egitera pasatunintzen. Ondoren, Maider, alaba, nire makina zaharrarekin hasi zen eta berarekin hasi nintzen berriz ere. Bera argazkilari trebea da orain!"





Pulunpeko argazki lehiaketa



MARIA ESANDIA HUARRIZ,
Arraitz - 3. Saria



Joan zen urtean bera eta semearen artean hiru sariak jaso zituzten. Aurten hirugarrena eskuratu du. Berak ateratako irudiak zerbait badute, beraz. Paseoan ia beti kamera eramaten du berarekin, eta, horregatik, natura eta animaliak ateratzen ditu askotan.

Joan zen urtean bi sari eskuratu zenituen, urte askoz lehiaketara aurkeztu gabe gainera. Aurten ere saria eskuratu duzu. Zorionak!

Eskerrik asko! Bai, oso pozik nago saria jasotzeagatik. Albiste hauek ongi etorriak izaten dira beti.

Paseoan kamera beti gainean eramaten duzula esan zenigun orduan. Naturaren kolorearekin ere horrela izan zen? Paseoan?

Bai, paseoan joaten naizen gehienetan eramaten dut kamara nirekin, edozer gauzari gustatzen zait argazkia ateratzea. Honetan ere, paseoan atera nintzen Arraizko harkaitzetan barna, eta pistaren ondoan zeuden pinpilinpauxak, karduaeren inguruan hegan.

Naturaren koloreak deitu duzu... izan ere, koloreak izugarriak dira.

Izugarri eman zidan atentzioa sei tximeleta ikustea, bakoitza kolore batekoa, landare berberaren inguruan hegan. Sei dira, baina bat ia ez da ikusten beste bat jarri baitzaitzaion aurrean.

Ez da erraza izanen, baina, horrelako argazkia lortzea... geldi-geldi egon behar duzu? Nola egiten duzu?

Animaliak ateratzeko, orokorrean, oso-oso geldi egon behar duzu eta ezkutatuta, berehala ikusten baitzaituzte. Honetan uste nuena baina askoz gehiago utzi ninduten hurbiltzen.

Kamera bereziren bat duzu? Edo mugikorrarekin ateratzen dituzu, nola da?

Asko mugikorrarekin ateratzen ditut, baina baita kamerarekin ere. Lumix automatiko bat dut.

Noizbait argazkilaritza ikastaroren bat egin nahi zenuela ere aipatu zenigun, astirik izan al duzu?

Ez, oraindik ez dut unerik aurkitu, baina egunen batean egitea espero dut.





Hegaztien jokabideari jarraituz, beste espezieetatik ikastea

Zaratatsua bilakatzen ari den egungo mundu honetan, bizilagun ditugun gainontzeko espezieak entzutea posible al da? Mendian eta egunerokotasunean parean ditugun beste animaliak eta landareak behatzea lagungarria suerta dakiguke?

Hegaztiekin egin nuen lehenengo lana Pirinioetan izan zen, Lindus tontorrean, hain zuzen ere. Han hegazti migratzaileak zenbatu egiten genituen. Zapelatz liztorjaleak, esate baterako. Oso altu migratzen dute, eta taldekatuta migratzen badute ere, bata bestearengandik asko aldentzen dira, lerrokatuta edo lerro paraleloetan, eta horrek asko zailtzen zuen gure lana. Hegazti harrapari hau Europako oihanetan ezkutatuta bizi da udan zehar (liztor eta erlastarrak jaten); baina, maiatzean eta abuztuan haren migrazioa ikusgarria izan daiteke, baita gure bailaretan ere.

Linduseko tontor hartan aste osoak pasatzen genitueneguz hegaztien jokabideari buruz ikasteko lehen eskola izan genuen. Eta zapelatz liztorjaleek, bata bestearengandik zeruan

barreiatuta bidaiatzen zuten egunetan, noizean behin, elkarri begiratzen zutela ikasi genuen. Haien burua biratzen zuten alde jakin batera behin eta berriro. Eta teleskopioarekin begirada haien norabidea jarraituz, beste zapelatz lerro bat deskubritzen genuen. Beraz, hegazti biziduneguz eraturako konstelazioak irakurtzen ikasi genuen. Eta, lehenengo aldiz, beste espezie baten hizkera, jokabidea, irakurtzeko gai garela ikasi nuen.

Orduetik, edozein oihan edo zelaitan, hegaztiak ez dutela bakardadean "lan" egiten ikasten jarraitu dut. Are gehiago: komunikazioa eta talde lan hori espezie batetik bestera doan zubi sarea da. Etsaingo zelai batean, esaterako, karnabak, buztanikarak eta arabazozoak egon daitezke ardien artean, itxuraz bakoitza bere gauzetan: karnabak haziak jaten, arabazozoak zizare bila eta buztanikarak ardien apatxen azpitik jauzitako intsektuak harrapatzen. Baina bat-batean **arabazozo bakar baten gorputz hizkerak alarma ematen duenean, hegazti guztiek mezua jasotzen dute eta batera erantzuten dute.**

Gure basoetan hain arruntak diren kaskabeltzek eta amilotxek ere beste zerbaitek erakutsi digute. 1921. urtean, Swaythling herrian lehenengo aldiz, kaskabeltz batek esne botila baten aluminiozko tapa zulatzen ikasi zuen. Horrela, tapa azpiko gantza eskuratzeko

“ **Hegaztiak ezagumena sortu, ikasi eta zabaltzeko gaitasuna erakutsi zuten** ”

(mokoratzeko izanen litzateke zuzenago). Halako saria jasota, ziur aski, egunero tapak zulatzen ibiliko zen gainontzeko kaskabeltzen aurrean eta 28 urte igarota, teknika berria Britainia Handiko herrietako kaskabeltz guztietara zabalduta zen. Hegaztiak ezagumena sortu, ikasi eta zabaltzeko gaitasuna erakutsi zuten.

Eta, bai, gu ere gai gara guzti hori behatzeko eta mundu zaratatsu honetan entzundakoa zabaltzeko, beste hegazti, ugaztun eta landareak ulertzen saiatuz, zubiak eraikitzeko edo berreskuratzeko. Hegaztiak zeharkatzen duten zeru urdin mugagabe hura bezain erraldoiak diren erroka ditugu aurrean. Gal ez gaitezen, bila dezagun gure lekua gainontzeko izakien eta hizkuntzen konstelazio bizidun honetan.



Iosu Alfaro

Adarra jotzen. ▶ Oihanetatik datorren uhina. Esan Erranen entzuteko



▲ Pierre Selim. Arabazozo pikarta (*Sturnus vulgaris*)



Elizondoko feriara bisita

Elizondoko feriara egin zuten txangoa kontatu digute hilabete honetan Denok Bat elkartetik. Azaroan, Lodosara joanen dira.

Aurreko alean aurreratu genuen bezala, urriko txangoa Elizondoko ferietara egin genuen. Goizeko hamarretarako iritsi ginen, ordu horretan asten baitira aziendak feria lekura sartzen. Polita izaten da ikustea aziendaren sarrera eta lagungarria erosteko asmotan dabilenarentzat, ez delako berdina geldirik edo ibilian azienda ikustea, nolakoa den antzemateko. Nagusi bakoitza bere taldeaz arduratzen da, aurretik berarentzat bereizitako lekura eramaten.

Eguraldiak lagundu zigun, egun guzia nahiko argi egon zen, ateri behintzat, kaleetan barna ibiltzeko. Azken urteetan bezala antolatuta zegoen, aziendak zuhaizpean eta tresneria ondoren. Jende aunitz ibili zen aziendak ikusten, batzuk zinez ikusgarriak baitziren.

Inguruko karraketan, salmenta postu ugari jarri zituzten, arropa, kirol-jantziak, poltsak, bitxiak eta hainbat eta hainbat gauza ikusi eta erosteko aukera zegoen.

Tartean, elikadura postuak ere bazeuden, taloa jateko aukerarekin, ogi berezia erosteko, pastak edo bizkotxoak, gaztak eta abar probatu eta erosteko aukera izan genuen.

Herriko ostatu eta gozotegiak ere bisitatuak izan ziren bazkaltzera joateko autobusa hartu aurretik.

Egun horretako bazkaria Etxalarko bentetan egin genuen. Menu bikaina eman ziguten! Betiko moduan bazkaltzeko tartea oso





atsegina egin zitzaigun, alde batetik, Elizondoko karrketan barna ibiltzean pilotutako nekeak esertzea eskatzen zuelako, eta beste aldetik, gosea asetzeko eman ziguten janari bikainarengatik.

Bazkal ondoren, batzuek musean, beste batzuek mahaian jarraitu zuten hizketan eta bakan batzuk Etxalar herria ikustera joan ziren.

Azaroko txangoa Lodosara izanen da, beste mota bateko feriak ikustera. Datorren alean kontatuko dizuegu gertatutakoa. Bitartean, osasuntsu egotea opa dizuegu.



 **Denok Bat**
Jubilatuen Elkartea



Euskara hurbil, zu urrun heltzeko

AEK bailaran euskara taldeak osatzeko lanean ari da. Hamar urte dira Erizegoitin lagun talde bat euskara modu praktikoan lantzeko eskolak jasotzen hasi zela. Aurten, zoritxarrez, ez da momentuz jende nahikorik bildu hasi ahal izateko. Horregatik, zure parte hartzea eskatzen dugu, euskaraz ikasten jarraitzeko.

Eskolak B1-B2 mailakoak izango dira, alegia, euskara maila ertainekoak. Aurretik esan bezala, modu praktikoan egiten da lanketa, batez ere, mintzamina eta komunikazioa lantzeko. Eskolak arratsaldeetan izango dira eta hiru tokitan izan daitezke: Erizegoitin, Odietan edo Larraintzarren. Izena ematen dutenen artean erabakiko da kokapena eta ordutegia.

Bestalde, Larraintzarren C1 mailako taldea osatzen ari gara, baina hemen ere jendez justu gabiltza. Eskolak astelehen goizetan izango lirateke, 9:00etatik 13:00era.

Azkenik, bailarako 9 ikasle hasi dira aurten euskara hasieratik ikasten. Saioak Larraintzarren izaten dira astelehen eta ostegunetan 15:30etik 18:00etara. Talde honetan ere izena eman dezakezu eta giro bikainean euskaraz ikasten has zaitezke.

Ikasturtearen kostua diru-laguntzez babestuta dago, beraz, nahiz eta matrikula ordaintzeko dirua aurreratu behar den, asistentzia ona baldin bada, ikastaroa bukatu ondoren, diru-laguntza jasotzen da.

Izena eman nahi baduzu deitu telefono hauetara edo idatzi posta elektronikoz:

larraun@aek.eus

Ultzama-Larraungo
AEK: 948 604 704

Mattin:
636973923

Zure zain izango gara,
eskerrik asko!





*Euskararekin
gora eta gora beti!*

AZAROAREN 3tik ABENDUAREN 10era

50 ekitaldi baino gehiago, Nafarroako txoko guztietan, haur,
gaztetxo eta familientzat, **Euskararen Nazioarteko Eguna** ospatzeko.


Azaroak

17

Moby Dick

LARRAINTZAR

Gizarte-etxean, 18:00etan.





Berueteko Juanbeltz gaztandegia, munduko gazta txapelketan saritua

World Cheese Awards sarietan, munduko gazta txapelketan, zilarrezko domina irabazi du aurtengoan ere Berueteko Juanbeltz gaztandegiak. Insalas Natural gazta izan da saritua, aurten Norbegian ospatu den sariketan. Urte asko daramatza Basaburuko gaztandegi horrek sariketan parte hartzen, eta lehenagotik ere sari ugari irabazi izan dituzte. Iaz, esaterako, gazta ketuen kategorian brontzezko saria irabazi zuen.

Asier Juanbeltz gaztandegiko kideak Esan Erran irratan adierazi zuenez, oso pozik hartu dute berria, eta lanean jarraitzeko indarra ematen die horrelako sariak jasotzeak. Zorionak Juanbeltz familiari!



Obra ugari egin dituzte eskualdean lan babestuko kideek

Lan Babestua- Empleo Social Protegido 2023
ARRARATS ESTALPEA

Arraratsgo hilerrian estalpe bat egin dute. Kontzejuaren laguntzarekin, langileek monitoreaekin batera, esatekin erabili zuten estalpea... Lan bikaina egin dute!

LIZASO KOLONBARIOA

Lizasoko hilerrian kolonbario bat egin dute.

MANKOMUNITATEKO EGOITZA MARGATU KANPOTIK ETA BARRUTIK

Lan txukuna egin dute eta egoitzak meretzatiko ikura hartu dute!

Eskualdeko hamaika txokotan eraikuntza, berrikuntza eta moldaketa lanak egiten aritzen dira urtero lan babestuko programan parte hartzen duten kideak. Aurten, maiatzaren 2an hasi zuten programa, eta azaroaren 30a arte segituko dute eskualdeko toki desberdinetan lanak egiten. Momentuz, baina, hainbat obra egin dituzte, hala nola, Gerendiainen iturri baten berreskurapen lanak; Arraratsen iturriari estalpea eraiki diote; Mankomunitateko bulego eta egoitzak barrutik eta kanpotik pintatu dituzte; eta Lizasoko hilerrian kolonbario bat ere egin dute.

Lan horietarako, monitore baten laguntza ere izan dute ekainetik irailera, formakuntzaren aldea ere izaten baitu proiektuak. Guztira, sei lagun aritu dira aurtengo programan: 4 emakumezko eta bi gizonezko. Aurrez aipatutako lan nagusi horiez gain, beste lan txikiago asko ere egin dituzte. Besteak beste, desbrozatzeko lan ugari egin dituzte Kontzeju askotan, bide eta txendetan, eta barnizatze eta pintaketa lan txikiagoak ere egin dituzte, esaterako, Auzan, Arraitzen eta Lantzen.

Europar Batasunetik eta Nafarroako Gobernutik laguntzen den programa da lan babestuarena, lan merkatuan txertatzeko zailtasunak izan ditzaketen pertsonen laguntza emateko helburuz.




Azaroaren 30eko greba feminista orokorra prestatzen ari dira eskualdean

Azaroaren 30ean, greba feminista orokorra dago deituta Euskal Herrian, eta eskualdean ere, mobilizazio eguna prestatzeko hainbat hitzordu egin dira honezkero. Urriaren 27an, esaterako, komunikazio eta propaganda lanerako hitzordua izan zuten Aizarotzen, eta urriaren 29an, berriz, auto karabana egin zuten Latasatik abiatuta.

Propaganda eta informazio ekintza horien ondoren, batzar mistoak ere izan dira, azaroaren 30eko jarduerak antolatzeko. Ale honen itxieran ez dago oraindik zehaztuta, baina, Oihanzabal eskola zaintza gunea izanen dela jakitera eman dute; eta, landa eremuan abereen zaintzak duen garrantziaz jakitun, lanak utzi ezin dutenei amantala balkoian edo leihoan zintzilikatzeko eskatu du greba komiteak

Zaintza eskubide kolektiboa aldarrikatzeko greba feminista orokorra da Euskal Herriko Mugimendu Feministak deitu duena. Aurreko greba feministak ez bezala, orokorra izanen da aurtengoa, eta, beraz, gizonezkoak ere borrokara batzeko deituak daude.



Carrefour
express

Zugandik gertuago

ASTELEHENETIK OSTIRALERA

9'00 - 20'00

LARUNBATA ETA IGANDEA

9'00-14'00 / 16'00 -20'00

**¡Zure zain
gaude!**

Erp. Gulina km. 12'8
31867 Aroztegi - Atezko Ibarra
IZARPE KANPINA


CAMPING - KANPINA
IZARPE
ULTZAMAKO ATEA - PUERTA DE ULZAMA



Amaitu da Gartzarongo pilota txapelketa

Urriaren 28an amaitu zen Gartzarongo pilota txapelketaren XXXVIII. edizioa. Toki Alai elkarteak antolatzen du urtero txapelketa ezaguna, eta aurtengoan,

220 bikote aritu dira partidetan, astebururo. Uztailaren 1ean hasi, eta urriaren 28 arte luzatu da kirol ekimena. Hona hemen azken emaitzak, kategoriatan banatuta:

Umeak

Peñagarikano / Labaka (Azpeitia/Ataun) **18**

Orkin / Lazkanotegi (Buruizgain/Bortziriak) **10**

Haurrak

Oses / Otaegi (Hernani/Behar Zana) **11**

Paraguay VII / Anzizar 18 (Naxera/Erreka) **18**

Gaztetxoak

Murua / Segurola (Alegi/Andoain) **18**

Ramirez / Lacalle (Sopela/Naxera) **13**

Neskak

Zabaleta / Galeano (Leitza/Antzuola) **22**

Oskotz / Ruiz de Larramendi (Oberena/Ados) **18**

Gazteak

Sarasibar / Santesteban (Oberena) **10**

Santxez / Canseco (Oberena/Naxera) **22**

Helduak

Elizalde / Alduntzin (Oberena/Zugarralde) **22**

Antso / Oskotz (Zugarralde/Oberena) **10**

Argazki zaharrak



Lantzen, 1984ko ihoteetan, mutiko-neskatxak fotografoari adi-adi? Batzuk bai. Baztatogi etxearen aitzinean Zutik: Itziar Oiaregi, Maite Ziganda, Jose Anjel Ziganda, Ricardo Eugi eta Joseba Ariztegi.
Txutxulupiko: Eneko Urritza, Martin Irurita, Juan Manuel Eugi, Unai Saratsibar, Imanol Loiarde eta Joseba Loiarde.



Zozketa

Ez dugu astorik zozketatzen

1888ko urtarrilean, San Anton bezperan, Irurtzungo feriak eta han ziren Goldaraztik joanak ere, hirulau lagun. Horietako bat, Andres Astitz, bertsolaria zen.

Bertan kinkillero bat bere gauzak saltzen, baina duro batzuk ateratzeko asmoz, animalien zaintzailearen bezperan, asto txuri bat atera zuen errifatzeke, ZOZKETATZEKO, alegia.

Eta goldaraztarrei tokatu astoa eta handik 3 urtetara edo bertsolariak bertso batzuk ondu zituen, 28 denetara; ez dakigu seguru paperean jarri zirenik, baina oso-oso ezagunak egin ziren gure alderdian, bertsokeraz at, oso-oso bixiak baitira eta umoretsuak:

Hona Zozketa nola egin zen kontatzen dituen bertso batzuk:

5

Eskuan billetiak
Zeduzkan saltzeko,
Gero arratsaldian
Errifatutzeko;
Erregutu zidaten
Nik ere artzeko
Asto ori lenbailen
enplegatutzeko

6

Inazio deitu nun
Bela neregana
Artuko ote genuen
Biok erdibana;
Etzela ez garesti
Biok sueldo bana
Bientzat izan zedin
Batek zeramana

7

Billetiak neronek
Berexiturikan,
Bi sueldo pagatuta
Sartu nun patrikan;
Nongoa ta nor nitzen
Listan arturikan,
Gero etzedin izan
inkomoririkan

8

Arratsaldeko irurek
Laurak bitartian,
Jendia baztertu zen
Estankoko atian;
Billetiak sarturik
Eltze motz batian,
Publikoz jokatuta
Guzion aurrian.

Gure zozketa ere berdintsu jokatzen da, denek jartzen dute beren izena **inkomorikan** suertatu ez dadin, astoa bere jabeak gelditu ez dezan, alegia. Astoa eta xueldoak, denak Patriziok eraman ez ditzan. Eta



horrela, gure zozketak ere 125-130 sari banatu eta bakarra ere ez da gelditzen emangabe; eta horrengatik ez dugu **inkomorika** konturik izaten. Denek beren xueldoa, euroa eta 20 eurokoa jarri eta, badakite, zortea

badu, jakinen duela zorteduna izan dela (Lehenik irratiz, biharamunean edo hurrengoan **ametza.eus**-en jartzen dugu **lista** eta gero telefonoz edo ahoz esaten diegu. Eta azkenik, Pulunpen jartzen dugu sarituen zerrenda (Kinkilleroak egin zuen bezalatsu)

Eta Inazio txartelak hartzia konbidatzen baduzu, anitzez hobekil!

Ea bada, **publikoz**, irratia bitartez eginen den zozketara hurbil zaitez, zozketa eder bat izan dezagun. Ea zortea duzun!

Oharra: Xueldoa, 0,25 pza zen.
Inkomorika: arazo, problema. Erdaraz, inconveniente. Euskaraz ibiltzen ote zen hitz hau? Edo bertsolariak berak asmatua ote? Duda ere badut nik.

Oharra: Andres bertsolariaz luze gabe idatziko dugu xehekiago.



Mundu digitalean euskara bermatzeko, denon ahotsak behar dira

'Gaitu' izeneko egitasmoa martxan jarri du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, euskararen presentzia mundu digitalean eta teknologia berrietan bermatzeko helburuarekin. Euskarazko ahots-corpora osatu nahi dute, eta horretarako, herritarrei euren ahotsak grabatzeko deia luzatu die

Gaurko mundua oso azkar eta etengabe ari da aldatzen, eta horretan, teknologia berriak eta adimen artifizialak zerikusi handia dute. Izan ere, geroz eta programa, aplikazio eta tresna gehiago ditugu eskuragarri, hamaika erabilpenetarako. Aplikazio, tresna eta makina horiek euskarazko eskaintza izan dezaten, ezinbestekoa da euskarazko ahotsen datu base erraldoi bat izatea. Datu-base hori sortzeko sortu da Gaitu, eta helburua betetzeko, ahots asko eta askotarikoak behar dituztela nabarmendu dute.

Zure ahotsa ere garrantzitsua da

Webgune bat sortu dute proiektuaren bultzatzaileek, bertan, herritarrek euren mugikor edo ordenagailuarekin zenbait esaldi grabatzeko. Gaitu.eus helbidean sartuta, oso modu errazean, azkarrean eta intuitiboan grabatu daitezke bertan eskatzen diren zenbait esaldi. Honela azaltzen dute proiektua webgunean: "Makinek gure hizkuntza ulertu eta hitz egin dezaten, lehenago irakatsi egin behar diegu. Horretarako, milaka ahots behar ditugu, milaka grabazio ordu euskaraz".

Profil desberdinetako herritarren ahotsak jaso nahi dituzte, gainera: adin tarte, genero eta mota guztietakoak. Ahots grabazio horiek guztiak lortzen dituztenean, teknologia berrietan diharduten enpresa guztiek erabili ahal izango dute datu-basea euskarazko tresna eta aplikazio berriak sortzeko.

Grabatu 30 edo 300 esaldi, modu errazean

Mozilla fundazioak martxan jarri duen Common Voice ekimena elikatuko da Gaitu.eus proiektuaren bidez. Webgunean sartuta, eta plataforma horren bidez, parte hartu nahi duenak. Haien jartzen dituzten bost esaldi ordenagailuaren edo mugikorraren mikrofonoarekin grabatu behar dira txanda bakoitzean. Txanda bat baino gehiago egin ditzake pertsona bakoitzak. Proiektuaren bultzatzaileek, pertsona bakoitza 30 eta 300 esaldi artean grabatzera animatzen dituzte.

Behin grabaketak egiterakoan, eta bidali aurretik, programak gure azentuaren inguruan galdetuko digu; Mendebalekoa, Erdialdekoa edo Nafarra, Nafar-lapurterra edo Zuberotarra den edo zeinetara hurbiltzen den zehazteko. Proiektuaren bultzatzaileek nabarmentzen dutenez, azentu desberdinak ongi etorriak dira, nahiz eta esaldiak idatzita dauden euskalkian irakurri behar diren.



BATU DITZAGUN GURE AHOTSAK,

TEKNOLOGIARI
EUSKARAZ
IRAKASTEKO



gaitu.eus

Erronka berri bat dugu euskaldunok.
Teknologiari eta adimen artifizialari euskara irakatsi behar diegu.
Eta horretarako, milaka ahots behar ditugu.
Mundu digitalean ere euskaraz bizi ahal gaitezten.

Sartu webgunean eta eman zure ahotsa.

AZAROAK

30

GRE

Bat egiten
baduru...
Zintailikatu
zure
mandama
balkoian!!

ADI
MOBILIZA

denon
BIZI
tzak
erdigunean



BA FEMINISTA
OROKORRA!

"Denon bizitak
erdigumean"
gunea, Jauntxoanako
eskolan!!

ZIOTARA!



Bertsoak Udaben, 1831. urtean (II)

Agertu berri diren beste bertso batzuk ekarri ditugu bigarren saio honetara. Borboreneko Maria Antonia Auzari paratu zizkieten.

Aurreko Pulunpen kontatu genuen 1831. urtean juizioa egon zela Udabeko gazte batzuen kontra, besteak beste Etxeberriko Juana Maria Aldatzi bertso zikinak paratzeagatik.

Nafarroako Errege Artxibo Nagusian gordetako juizioaren paperen artean, Juana Mariaren kontrako bertsoez gain, Borboreneko Maria Antonia Auzari paratu zizkietenak ere agertu berri dira. Maria Antoniaren anaiak, Martin Josek, deklarazioan esan zuenez, ez zekien norenak ote ziren bertso horiek, baina Dorreko mutila, eta baita Jose Benito eta Martin Esteban Goñi anaiak ere, udabearrak denak, ibili omen ziren kantu-kantari.

Aurrekoan bezala, pare bat testiguk bertsoak kantatu zituzten beren deklarazioetan. Idatziz bildu ziren, eta gaztelerara itzuli (halamoduz), juizioan denek ongi entenditzeko. Jose Benito Goñi 20 urteko udabearrak bere deklarazioan eman zuen bertsoa ekarri dugu hona, gaur egungo idazmoldean.

Bertsoetan heldu denez, herriko festak izanen ziren, iraileko Amabirjinak, eta Salbetik bueltan, elizatik etxera, "bekatu" egin omen zuen Auzak gazteren batekin. Bertsoetan, Nafarroan

aski zabaldua egon den ohitura aipatzen da: festetan piperropilak banatzekoa, gustuko neska-mutilei inguratzeko. Auzak lotsarik ez baitzuen, banatzeaz gain, piperropilak bati eta besteri eskatzen ere ibili zen, eta hori itsusia omen zen neskato

batendako. Zorionez, orduz geroztik kanbiatu dira gauzak.



**Ekaitz Santazilia eta
Ricardo Urritzola**



Udabeko Borbonea (Borbonea, gaur egun). Arg.: R. Urritzola ▲



1

Memorian dudana behar nuke pasa.
Dama eskogitua, egon zaite lasa;
opatuko dizue magina kausa.
Maria Antonia du izena, lonbria du Auza.

2

Dama, emanen dizut garbi aditzera
nola etorri zinen Salbetik itxera.
Orduan hartu zenuen zuk zere plazera;
askok esaten du dontzeila etzarella.

3

Gauza batez nago ni harritua:
nola galtzen duen besteren kreditua.
Berak izanikan nahiko delitua,
adiskideren bat dago serbitua.

4

Errutira etorri da gure mandatua.
Deseoz dadukagu gogoan hartua.
Ez da idukiko gauza hori a(ha)ztua;
elizatik itxera egin pekatua.

5

Gauza bat jakindu dut nik nere herrian:
dama bat opatu dutela beren iturrian,
mintzatzen ziradela klaro eta egian,
piper-opilaren eske landaren erdian.

6

“Dama horren ibilera asko zait gustatu”.
Piper-opila zioten mutilari eskatu.
Labanaz ebaki ta berehala puskatu;
nahigo zian dama harrek horrela jostatu.

7

Horra bertso berriak, bear den moduan.
Gauza onik eztago horien buruan;
lekua galdurikan daudela zeruan,
nahigo dute egon betiko infernuan.

8

Zer dela uste dute honra galtzia?
Betiko anima infernuan sartzea.
Hobe du bizitza berri bat hartzea;
berak gaizki eginez orain agertzea.

1

Lo que tengo en la memoria debía pasar.
Dama escogida, esté vmd. ancha;
encontrarán a vmd. muchas causas.
M[aría] Antonia tiene nombre, apellido Auza.

2

Dama, la daré a vmd. claro a entender
cómo volvió vmd. de la Salbe a casa.
Entonces tomó vmd. a su placer;
muchos dicen q[u]e no es vmd. doncella.

3

Por una cosa estoy yo aturdido:
porq[u]e pierden el crédito de otros (o quitan el crédito a otras).
Teniendo ella bastante delito,
algún amigo está bien serbido.

4

De lejos ha benido nuestro recado (o se ha hecho público),
y con deseos lo tenemos en la memoria.
No se tendrá en olvido ese recado:
cometieron pecado de la yglesia a casa.

5

He sabido una cosa yo en el pueblo:
que a una dama le han encontrado en su fuente,
que ablaba claro y con verdad,
en medio de la heredad por el piper-opil
*(no se sabe el sentido q[u]e quiere darle, pues piper-opil es como una
rosquilla, aunque en figura de bizcocho)*

6

El modo de andar de esa dama mucho me ha gustado;
piper-opil pidió al mozo.
Cortando lo mismo q[u]e con la nabaja hizo pedazos;
quería esa dama así dibertirse.

7

Aquí bersos nuevos como deben.
Cosa buena no hai en esas cabezas;
perdiendo el puesto en el cielo,
quieren estar para siempre en el ynfierno.

8

¿Qué les parece que es perder la onrra
sino para siempre la alma entrar en [e]l ynfierno?
Más les bale tomar un nuevo modo de vivir,
confesando los males de antes.

9

Hamargarren bertsoa aditu behar duzu.
Anima bat besterik zeregan ez dezu.
Entendi dezakezu ligero eta estu;
besterenak ere galdu-eta nahi dezu.

10

Despedidak ematen orain behar det hasi.
Bakotxa bere gisan nahi genduke bizi.
Kortesia haundirikan ez dezu ikasi;
mutilen ondoretik begira gehigo hasi.

11

Aditu behar duzu, Maria Antonia:
prenda eskogitua ezin da hobia.
Etxera bidean galdu honorea,
zergatik eman dion besteri bere podorea.

12

Alperrik da hastia buelta eta jira;
hamabi bertso berri paperean dira.
Norbaitek eman dizu paratzeko bide.
Tolosatik barrena etorriak dire.

9

El décimo berso tiene vmd. q[u]e oír.
Más q[u]e una alma sobre si, no tiene vmd.
Puede vmd. entender ligero y pronto.
Las de otros también quiere vmd. perderlas.

10

A despedirla ahora tengo q[u]e principiar.
Cada uno a su idea quisiera vivir.
Mucha cortesía no a aprendido vmd.;
no principie vmd. más a mirar a los mozos.

11

Oiga vmd., María Antonia, prenda escogida no es
posible mejor.
En el camino para casa perdió el honor,
porque dio a otro su poder.

12

En valde es que principie dando buelta o gira;
doze bersos nuevos están en el papel.
Alguno le ha dado vmd. para ponerlos motibo.
Son llegados por Tolosa aquí.

Zorionak Zorionak!



Zoriondu zure laguna
Pulunpen!
pulunpe@gmail.com



Beti ikasiz, etsi gabe

Esan Erran irriaren 25. urteurrena ospatu genuen joan den 21ean Atetzen, Eritzen. Ultzama dugu udalerrri populatuena eta Lantzen ondoren, berriz, Atetz dugu ttikiena. Eta jendeari mugitzea kostatzen zaio eta gehiago larunbat goiza baldin bada. Nolanahi gisa, jende mordoxka bildu zen, 50 lagun baikinen herri bazkarian.

Eritzen duten biltokia, ederra, zabala eta eroso da, ibar osorako egina. Giro bikaina eta bazkari ona. Zer dugu gehiago eskatu behar? Bai, atzendu gabe, goizeko aizkolariak eta arratsaldeko "bingo" berezia aipatu behar; eta dantza soinu jotzaile vintage samarrekin (eta Taldearen izen itsusia) Dena ederki atera zen.

Begirada bat jendeari: adina, etorkia, janzkera... festa guziek dute beren seilua. Eta jendearekin jolasean aritzea, ihardukitzea... oso interesgarria izan liteke. Eta izan zen. Beti entzuteko gaude eta ikasteko ere bai. Behar ere bai!

Festaz aparte, honekin eta bestearekin hizketan, badakizue, gustatzen zaidala jendearen hizketei pultsua hartzea. Eta gaztetxo batekin **enantzu** kontua atera zen hizpidera eta ikusi nuen ederki konprenitu zuela. Arranopola! Ba ote da gure alderdian bere adinekoren bat hitz

hori konprenitzen duenik? Orain 30 urte mundu guziak erabiltzen zuen hitza da, mundu guziak!

-Eta nork erakutsi dik hitz hori?

-Attek.

Emakume euskaldun eta euskaltzale on batekin hizketan eta herrian **esten** ote zuen galdetu nik eta, to! ez zuen konprenitu. **Beharrik** esten duen, bestela iruindar batentzat gogorra izanen litzateke herri ttiki-ttiki batean bizitzea,

Aipatu ditugu goiti, izena, bigarrena aditza eta azkena, adberbioa. Hiru hitz ezezagun. Honek, dena dela, konponketa erraza du. Hiru hitz ikastea erraza da.

Baina, D ereduan ikasitako gazte batek, atsaldean, hizketan, honako hau esan zidanak konponketa zailxeago du: **pixka bat fresko egiten du** (5 hitz eta erdaren kalkoa. Huts handia da) Betiko euskaldun zahar analfabetoak esan nahi hori honela azalduko du: **frexko xamar dau** (3 hitzekin, zuzen, jator eta zehatz)

Arratsaldean, dantzara, jende frankoz gehiago hurbildu zitzaigun. Larunbat arratsalde baterako jende gehiago izaten baita eta, nik, nirekiko, jendea bazetorrela ikustean, pentsatu nuen: **jendearen emana!** (Azken hau lokuzioa da)

Batzuetan optimista samarra naiz eta ardo frexkoko eguna izan zela aitortuko dut. Goizean, zahar, gazte eta gaztetxo. Atsaldean gure ttikittoak. **Etorkizuna.** Baina, Euskal Herriarena?



Txurdan

- **Hiztegia**
- **Enantzua:** gauzak azkar eta aise egiteko gaitasuna, eta ongi, jakina: "Emakume hori **enantzu** handikoa da" edo "mutil horrek ez du **enantzurik, enantzu** gabekoa da".
- Eta enantzu hitzetik "enantzatu" aditza. Eman dezagun, baratzean ari zarela letxugak sartzen. 100 letxu landatu behar dituzu eta oso mantxo ari zara eta zerua goibeltzen ari da. Euria da laster. Aita atera zaizu leihotik oihuka:
- -*Bustitzia nai ez badun, enantzatu bearko dun! Bela dun eurie!*
- **Etsi:** Tituluan "etsi gabe" jarri dut. Etsi horrek esanahi bat du. Berriz, emakume horri "ea esten zuen" esan diodanean besterik zen: ea bere herri ttiki horretan bizitzen ohitu ote zen esan nahi nion, ea esten zuen. Bi etsi horiek bi hitz diferente dira gainera. Hemengo gure amek eta amatxik ongi zekiten hori. Ez badakizu, irakur hiztegia eta zapla, ikasi. Ez zara damutuko.
- **Beharrik:** beharrik etorri garen, eskerrak etorri garen. "Menos mal" erdaraz (Izugarri erabiltzen duguna)
- **Jendearen emana!** Edo, **Hau jendearen emana!** Jendea neurritz kanpo datorrela, izugarri datorrela. Aspaldian erabili gabeko lokuzioa zitzaidan burura etorri.



▲ Eritzeko udaletxea.



Txokolateroren etxea Jauntsaratsen

Oskozko aldia

Juan Sasturain Busto **Ollarangoa** zen, bertako Albaitariaren semea, nahiz bere aurrekoak Gorritin izan jatorria. Gorritin Sasturaindarrak asko izan da nahiz orain horrelako deitura duenik ez den inor bizi.

Juan hau ez dakigu nola baino Oskozko errotariaren alabarekin ezkondu zen, Benita Gorriti Iribasekin, 1880ean. Errotaria, Jose Esteban Gorriti Lakuntza, Arruazuko errotako semea zen, Oskozko errotara etorria bere familiarekin

Errotan, 1882an sortu zitzaizen lehen haurra Juan eta Benitari, Ciriaca, eta ondoren senar-emazteak eta haurra Oskozko herrian jarri ziren bizitzen, ez dakigu seguru zein etxetan, ni

Karroan jarri ote zen bizitzen baina Joxepita Sasturainek esan zidanez, Oskozko sarrerako lehen etxean zen; beraz, **Barabarneko maistarretxean** behar zuen izan.

Beste bi seme-alaba ere izan zituzten Oskotzen, Agustin eta Juana, 1884an eta 1886an jaiokak.

1885. urtean Oskotzen izan zen kolera **izurritetik** bizirik atera ziren nahiz kutsatu, kutsatu bai egin zirela.

Jauntsaratsa salto

1888.eko urtearen lehen egunean Jauntsaratsa etorri ziren.

Ez dakigu noiztik, baina ordurako Juan txokolategintzan ari zen. Ez txokolate egiten soilik, argizariak, karameloak, bolatuak eta beste ere egiten baitzituen. Garai hartan

argizaria gauza inportantea zen, oraindik asko falta baitzen elektrizitatea izateko.

Horretarako bazuen langile bat ere, Etxalekuko **Itturriko** Maria Beloki Arruitz.

Aise etorri ziren Jauntsaratsa! **Apeztegikoa** zen **Karakoetxezarra** bota zimenduetatik eta etxe berri bat egin baitzuten Villanuevatarrak, maistarra jartzeko. Eta etxe berri-berrira etorri zen lehen maistar hori Juan Sasturain izan zen.

Ordurako familia handi xamarra, neskamea berekin ekarri zutelarik, Josefa Lizaso Lizaso, Oskozko **Martixeneko** alaba.

1934an etxe berria egin zuten.

Juan eta Benita etxe txiki honetan bizitu ziren 1888tik 1934ra, biak barne, hau da, 48 urtez. Baita familia ederra ere hazi, eta ez nolana hikoia, 8 ume izan baitzituzten. Gainera, behegian denda eta txokolatea egiteko lantegitxo bat izan zuten.

Negozioak funtzionatzen zuen, familia hazteko adina eta gehiago, etxe berri bat egitea erabaki baitzuten; baita egin ere! Oraindik, Juan bizi zenean, 1934an, *Villa Sasturain* etxea egin zuten eta familia guziak bertara alda egin zuen, eta hemen dendarekin segitu zuen Juanen semea zen Miguel Sasturain Gorritik.

Etxean bertan zuten denda, baino Miguel delako hau herriz-herriz ibiltzen zen bere behorarekin gauzak saltzen, Jauntsarasko dendan, Pilar Alberro Zubillaga,



Etxea. Itsatsia du behitegia eta sabaia ▲



bere andrea gelditzen zelarik. Hau Arrarasko **Zauleko bordako** alaba zen.

Miguelak ibiltzen zituen herriak Eltzaburutik hasi eta Muskitzerainoko ia guziak ziren.

Bost seme-alaba izan zituzten, Benita, Francisca, Jesusa, Eladio eta Josefa.

Miguel gazterik zen alargundu, 1937an hil baitzen Pilar, etxea estrainatu eta hiru urtera. Eta Benitak hartu behar izan zuen amaren lekua, familian eta dendan. 13 urte besterik ez zituen gaixoak!

Benita eta bere anai-arreben bizitza.

Eta beti etxe honetan bizi izan da familia hau, Jesusa ezik, Jose Maria Ruiz Artieda Imotz-Basaburuko albaitariarekin ezkondu baitzen eta bi ume izan zituzten. 1972an edo, Iruñera lekualdatu zen familia hau.

Joxepita maistra izan da beti. 18 urtetan edo titulua atera eta Aizarotzen urte bat egin zuen. Herri honetako azken maistra izan zen. Ondoren Itsasoko eta Beramendiko maistra izan zen Ihabena joan artio. Hemen urte askoz maistra izan ondoren, eta eskola hertsu eta Jauntsaraskoa ireki zenean, hau ere, Ihabendik etxe ondoko eskolara pasatu zen eta bertan bukatu zuen lan-bizitza. Dendan ere maiz ikusiko genuen Joxepita, eta beste hainbat gauzetan. Ehizalarien elkarteko kontu eramaile, esate baterako.

Benita, Pakita eta Eladio beti etxean izan dira lanean, Eladio nekazalgoan aritu zen. Eta senideak aski ez eta urte luzez Ibarreko medikua izandako Silvestre Baleztina Mutuberria saldiastarra ere, etxean izan zuten apopilo hona etorri eta jubilatatu

artio, eta ondoren ere bai urte batzuez. Senide bat bezala.

Benitak, zuk Pulunpe hau hartzerako, 100 urte beteak izanen ditu, azaroaren 25ean hain zuzen. Honek hainbat lan izan ditu:

-Dendaria izan zen jubilatatu artio; eta geroago ere bai.

-Estankoa (dendarekin batera)

-Nafarroako Aurrezki Kutxako eta Vasconia Bankuko korrespontsalia eraman zuen.

-Udaleko depositariako lana, bere aita bezala.

-Herrietako jende guzien enkargu, bateko medikua edo albaitaria zela, besteko mandaturen edo abisuren bat... kontutan har bertan izaten zela telefonoa publikoa ere; beti egon izan da bere ahizpekin batera Basaburuko eta nonahiko jendeen zerbitzura, musu truk.

Atzendu gabe ezin utzi, etxe honetako hiru emakume hauek zerbitzu ederra egin izan dutela Jauntsaratsen sakristau lanetan, elizkizun guzietan parte hartuz. Eta gehiago dena: egunero jotzen

zituzten, nire ezagutzan bederen, ilun ezkilak, hutsik egin gabe.

Hiru **belaunaldi** bete-beteak, esan bezala, lehena, Juan Sasturain Busto; bigarrena, honen semea, Miguel eta hirugarrena, biloba, Benita; hona hiru belaunaldi. 125 urte egin dituzte basaburuarren zerbitzuan, ez da marka makala, ez horixe!

Etxea udalari saldu diote

Adinean aurrera goazen guziok zenbat aldiz ez ote gara **Txokolateroren** etxean egon hau dela edo bestea dela? Ni, garai batean, egunero ez, baina oso-oso maiz bai. Denda egun guzian irekia, baina, batez ere ilunabarrean, beti izanen zenuen norbait baxo erdi bat ardo edo zerbeza bat hartzen. Mostradore aurrean, zutik, patxada ederrean, Bailarako kontuz, hizketa gozoan gehienetan. Bestela, han zen Benita. Errespetua genion gero!

Orain, berriz, atzera bilduko omen gara nahi dugunean, Udalak erosi baitie etxe hau, zaharrendako



▲ Benita, denda. 2003koa da fotografia hau



Sasturaindarrak

Basaburuan

biltoki edo jantoki edo zer dakit nik, jartzeko. Hori, Udalak zaharren zerbitzura jarri nahi du etxea. Ea lehenbailehen hasten den, jendea nahietan dago noski. Oso ongi iduritu zaio erosketa, baina batez ere proiektu mamitu edo erdi mamitu gabeko hori.

Juan Ignacio Cirac Sasturain

Sasturaindarretan famatuena dugu goiti aipatu duguna.

Fermin Sasturain Gorriti, maistrua izan zen, Miguel, Txokolateroren etxeko nagusiaren anaia. Saldiasen egon zen mastru. Honen alaba zen Juanita, Katalunian ezkondu zena Cirac delako batekin, Manresara; eta hauen semea da Juan Ignacio Cirac Sasturain zientifikoa. 2006an, 41 urtetan, *Azterketa zientifikoko eta Teknikoko Asturias Printze* saria eman zioten. Ondoren, Nobel sarirako behin baino gehiagotan izendatu dute.

Konputazio kuantikoan aditu ospetsua, Ordenagailu kuantikoaren atzetik dabiltzan mundu horretakoa.

Alemaniko Garching hiriko *Optika Kuantikoko Max Planck Institutuko* Zuzendaria da.

Gehiago jakin nahi duenak ikus beza Wikipedian eta jakinen du, xehe-xehea, bere bizitza zientifikoaren berri. Merezi du ikustea, bai horixe!

Azken ordukoa: Joxepita hil da

Udalak etxea erosi zuela eta urriaren lehenean omenaldi ttiki bat egin zitzaizen Sasturaindarrei. Bertara izugarrizko jendeketa bildu zen. Sasturaindarren partetik Joxepita Sasturain eta bere iloba Lourdes Ruiz Sasturain izan ziren. Etxeko atarian, autoritateen ondoren, Lourdesek hitzaldi motx eta argigarria eman zuen eta ondoren otamena etxe atzeko hariztian. Jendea pozik ikusi nuen.

Baina, ezbeharrak izan dugu. Omenaldi egunean hainen ederki eta bizkor ikusi genuen Joxepita! Ez genuen horrelakorik espero! Hil honen 28an, urrian, utzi gaitu, bat-

batean. Hemen esana den bezala: *litzeko, gaztiak ordu jakiñik ez; eta zarrak ihes egiterik ez.*



Txurdan

Hiztegia

Ollaran: Valle de Ollo

Deitura: Abizena edo apellidos.

Alda egin: etxeko aldatatu. Mudanza erdaraz.

Belaunaldia: generación

Otamena: lunch-a



▲ *Hiru ahizpak, Benita, Pakita eta Joxepita 2011an*



Osasunerako mikroorganismoak beharrezkoak ditugu

Bizitzeko mikroorganismoak behar ditugu gure gorputzean, bakteria gehienak ez baitira kaltegarriak. Horretarako, jaki hartzituez baliatu gaitzke. Izan ere, elikagaiak kontserbatzeko bakarrik ez, horretarako ere balio dute, besteak beste.

Onddoak, legamiak, bakteriak, birusak... mikroorganismo asko dira, batzuk kaltegarriak dira, baina badira beste asko onuragarriak direnak. Gure gorputza mikroorganismo bezala dago, sinbiosian bizi gara haiekin. Haiek betetzen duten funtzioa beharrezkoa zaigu bizitzeko.

Mikrobiota, gure oinarria

Orain arte heste-flora deitu dugun hori da mikrobiota, eta, oinarria dugu, hura osasuntsu izan behar baitugu gu ongi egoteko: "Gure gorputzean, baratzean bezala gertatzen da, hazia oso ona badugu baina lurra ez, landarea ez da ongi haziko. Dena da garrantzitsua. Hau da, oso ongi jan dezakegu, baina gure gorputzak elikagaiak ongi probestu ditzan, mikrobiota anitza eta indartsua izan behar dugu. Gure oinarria da. Lortzeko, mikrobiota elikatu behar dugu. Beraz, badira elikagai batzuk berarendako hartzen ditugunak eta ez guretzako. Hartzidurekin mikroorganismoak ugaltzen dira, eta haiek jaterakoan gure mikrobiota birpopulatzen dugu".

Mikrobiota, nola elikatu?

Mikrobiota birpopulatzeko modu asko dago. Jaki hartzituen bidez, modu bat da; baina gehiago dira: "errekako uran, adibidez, mikroorganismoak daude; ezin dugu edozein ura edan, noski, baina iturri eta iturburuetatik edanez, adibidez, mikrobiota indartzen dugu. Edo pertonekin harremana izanez, pertsona

diferenteekin egoten bagara, gure mikroorganismoak elkarbanatzen ditugu, azalean ere baditugulako; oinutsik ibiliz, mendian, zelaietan ere bai". Azaldu digu Llopek.

Egoera normaletan, zenbait mikroorganismori beldurra kendu behar diogula uste du Llopek: "Izan ere fobia bat diegu birus eta bakteriei, eta gure joera dena desinfektatzea da. Hori ongi dago gaixotasunen bat baldin baduzu, edo ahul baldin bazaude, sistema immunologikoa ongi ez baduzu; baina, bestela, mikroorganismo guztiak hiltzen baldin baditugu, hor aukera galtzen dugu aniztasun hori lortzeko".

Antibiotikoa hartzen dugunean, adibidez, mikrobiota errekueratzea garrantzitsua da. "Antibiotikoa hartzen dugunean, bakteria kaltegarriak hiltzen ditugu, hori oso garrantzitsua da. Baina kontuan izan behar dugu mikroorganismo onuragarriak ere hiltzen ditugula. Horregatik, ondoren, mikrobiota birpopulatzeko komeni da".

Elikagai hartzituak

Elikagai hartzituak eta ezberdinak jan behar ditugu, hori garrantzitsua da: "Beti jogurta jaten badugu, lactobacilo zehatz batzuk izanen ditugu, baina kefirrekin uztartzen baditugu, aniztasun gehiago izanen dugu. Horri hartzitutako barazkiak gehitzen badizkiogu, hobe: chucruta, azenarioa, olibak edo pepino txikiak kontserban, ozipina, edari hartzituak (eta badira alkoholikoak ez direnak

ere (barreak) ...". Garrantzitsua da pasteurizatua ez egotea. Erosten dugun kombucha, tamari edo artatxikia (miso) pasteurizatua egoten delako, eta horrek ere mikroorganismo guztiak hiltzen ditu.

Errezeta:

Udazkenean gaude eta entsalada erraz bat prestatzeko baratzeko barazkiak hartuko ditugu; Orain: erremolatxa, sagarrak, intxaurrak, azenarioak eta azak.

1) Barazkiak egosi gabe hartuko ditugu eta txikitu, birringailu batekin. Intxaur batzuk botako ditugu, eta guztiari gatz. Ondoren, sagar ozipina (pasteurizatu gabe) eta olio, fruitu melatu baten bat ere botako diegu gozotasuna emateko.

2) Baina ozipina eta olio bota aurretik, hartziduraz baliatu nahi badugu, beste modu batera egin dezakegu: katilu borobil batean jarriko ditugu barazkiak eta gainean plater bat. Plateraren gainean barazkiak zanpatzeko pisua duen zerbait (bi esne kaxa, adibidez). Goizean eginen dugu eguerdian jateko. Horrela, ordu batzuk utziko dugu hartzidura has dadila. Hartzidura arina izanen da, baina asko laguntzen du, digestioari, esate baterako, aza adibidez, zailagoa izaten delako digeritzeko.

168 partaide, Basaburuko II. Enduro lasterketan

Badira urte batzuk Berueteko Manu Alvarez mendiko bizikleta bultzatzeko ekimenak martxan jartzen hasi zela. MTB Basaburua mendi bizikleta taldea sortu zuten, eta ia lehendabizikoz, Enduro lasterketa egin zuten bailaran. Aurten, urriaren 21ean eta 22an izan zen lasterketaren bigarren edizioa, arrakasta izugarriarekin. Antolatzailea elkarrizketatu dugu, zein balorazio egiten duten galdetzeko

Hasteko, zer da zehazki Enduro lasterketa bat?

Lau zati kronometratu izaten dituzten lasterketak dira, eta partaideek, denbora muga bat dute lotura horiek egiteko. Mendiko bizikletan dauden modalitateetako bat da.

Iaz egin zen lehenbizikoz eskualdean lasterketa hau. Zertan desberdindu da bigarren edizio hau?

Iazkoa Bucardo koparen barruan sartutako lasterketa izan zen, eta beraz, kudeaketa kontu gehienak Bucardoren antolakuntzatik egin zituzten, nahiz eta ibilbidea prestatzeaz gu arduratu. Aurtengoan, Irrisarriekin eta Lesakarekin batera antolatu dugun Nafarroako txapelketa izan da, eta oraingoan, guk egin dugu dena. Gainera, aurtengoan, ibilbideak nahiko sekretuan gorde ditugu

azken momentu arte. Bi bide berri egin dira azken momentuan, eta horrek lan handia eskatu du: markatzea, prezintatzea... Eskerrak talde handia zegoen laguntzeko prest!

Nola izan da aurtengo lasterketa, eta zenbat jende hartu du parte?

Larunbatean sailkatzeko proba izaten da: zati bat kronometratzea izaten da, eta denboraren arabera, igandeko irteera postuak zehazten dira. Igandean, partaiderik onenak bukaeran ateratzen dira, ikuskizun handiena bukaeran egoten da, beraz. Larunbatekoa, gainera, umeen lasterketa ere egin zen, 8-14 urte bitarteko hamar bat ume atera ziren. Horiek eta helduak kontuan izanda, 168 pertsonak hartu dute parte. Tartean nafar asko, baina baita Euskal Herriko beste herrialdeetakoak, Kantabriako jendea, errioxarrak, eta baita katalanen bat ere.

Nolakoak ziren ibilbideak?

Larunbatekoan Gartzarongo uso postuetatik beherako zatia egiten zen, Sugar deitzen den bidexka. 7km eta 250 metroko desnibela izan ziren, umeek ere egiteko, eta hor tartean monozikloen erakustaldia ere egon zen. Igandean, berriz, Jauntsarastik atera eta 28km-ko ibilbidea zen, 1.300 metroko desnibelarekin. Zailtasun aldetik, jaitsierak berez ez ziren oso teknikoak, bidexkaren bat kenduta. Edozein mailako jendeak egiteko modukoa zen orokorrean.

Erantzun ona izan zuen ekimenak, bai parte hartzaile aldetik, eta bai antolakuntzan aritu ziren boluntarioen aldetik, ezta?

Bai, jendea oso gustura gelditu zen, askok zoriondu gintuzten, batez ere antolakuntza aldetik. Zirkuituko hirugarren zatia asko gustatu zitzaion, gainera, hori zen aurkeztu genuen sekretuetako bat, jendeak lehenbizikoz egiteko aukera izan zuena. Eta, txanden aldetik ere, oso pozik gaude, 40 bat lagun aritu gara lanean. Azkenean, horrelako lasterketa batean jende asko behar da lanerako: ibilbidean zehar, edozein gauza gertatzen bada... eta ekintza asko ere egin dira ekitaldian: sari banaketa, parrillada, material guztiaren prestatketa... eskualdeko jendea eta Iruñeko bizikletako lagunak aritu gara auzolanean.



Manu Alvarez, MTB Basaburua taldeko kidea, lasterketaren aurkezpena egiten

HITZORDURIK GABE
8:00* - 9:30

HITZORDUAREKIN
9:30 - 14:30



ZUK AUKERATU

Orain Nafarroako Gobernuaren herritarren arretarako eta erregistroko bulegoetara joan zaitezke HITZORDUAREKIN edo GABE.

* Ogasuneko bulegoak 8:30ean irekitzen dira

Informazioa
eta hitzordua



📞 948 012 012

🌐 herritarrenarreta.nafarroa.eus



Zer ikusi eta entzun gure atari digitalean?

Esan Erran irratiko denboraldi berriarekin batera, kolaborazio eta irratsaioen podcastak ere bueltatu dira Amezti.eus atarira. Gainera, aurtengo ikasturtean baditugu hainbat kolaborazio eta kolaboratzaile berri. Horiek guztiak topatuko dituzue, beste gauza askoren artean, webgunean. Bestetik, irratiazen urteurren ekimenetako bideoak ere ikusgai dituzue bertan!

Ingurumenari kolaborazioa

Edurne Gerendiainek egiten zigun iaz irratian, eta iazko podcast horiek guztiak ere badituzue amezti.eus-eko artxiboan. Aurtengoan, baina, losu Alfaro etsaindarrak fitxatu dugu ingurumen gaiak lantzeko, eta atal berri bat estreinatu dugu berarekin: *Adarra jotzen, basoetatik datorren uhina*. Lehen atalean, urriaren 25ean, hegaztiak izan ziren protagonista. Hegazti migratzaileez, hegaztien kantuez eta beste hainbat kontuz aritu ginen Alfarorekin. Entzungai duzue kolaborazioa, ez galdu!



Losu Alfaro



lotutako

Kolaboratzaile berriak ez ezik, beteranoak ere baditugu gure artean, noski! Horietako bat da Laia Llop aizaroztarra. Iaz bezala, **osasunaren eta batez ere elikaduraren inguruko gaiak** ekarriko dizkigu berak. Medikuntza txinatarrean eta nutrizioan aditua da Llop, eta garaiari lotutako hainbat gomendio ekartzeaz gain, errezeta goxo eta osasuntsuak ere eskaintzen dizkigu. Urriko kolaborazioan, gai oso interesgarri baten inguruan aritu zitzaigun: fermentazio edo hartxidura prozesuez. Jakiak kontserbatzeko modu horren inguruan gehiago jakin nahi?



Laia Llop



Gure artean dugun beste kolaboratzaile beterano bat, Jule Goñi erasoarra da. Iaz bezala, telesail eta pelikula gomendioak ekarriko dizkigu hileroko-hileroko *Spoiler Alert!* atalera. Interneteko hainbat plataformetan ikusgai dauden ikus-entzunezkoak ekartzen dizkigu gainera. Gomendio oso onak eta interesgarriak denak! Beraz, zer ikusi ez dakizula baldin bazaude... zurea da atal hau!

Jule Goñi





Dakizuenek, astelehenetik ostegunera 10:00etatik 11:00etara emititzen dugun Egun Ero irratsaioko kolaborazioak dira aurrez aipatutakoak. Baina, ostiraletan, irratian, zer? Ai, ostirala, ostirala... Bada, Egun Ero Kantuz saioarekin jarraituko dugu aurtengoan ere, baina ostiralero izan beharrean, *Memoriaren txokoa* deitu diogun beste irratsaio batekin txandakatuko da aurtengoan. Alegia, ostiral batean Egun Ero Kantuz saioa izanen dugu, beti bezala, eskualdeko gonbidatuekin, eta hurrengo ostiralean, berriz, *Memoriaren txokoa*.

Zer den azken hau? Bada, azken hamabostaldiko efemeride bat aukeratu, eta sakonean lantzen dugu ordubeteko saio berezi honetan. Urriko bi saioetan, Uruguaiako Tupamaroen inguruko bat eta Itoizko urtegiaren aurkako borrokaren inguruko bat izan ditugu. Eta, Egun Ero Kantuz saioa lehen bi gonbidatuak, berriz, Itziar Perez Argomaniz (kar, kar, bai, gure Itziar!) eta Udabeko Imanol Bihurrarena.

Memoriaren txokoa ▶



Egun Ero Kantuz ▶



Amezti.eus webguneko hilabeteko errebaso honekin amaitzeko, pasatu berri ditugun irratiazen 25. urteurreneko ekimenei begira jarriko gara berriz. Izan ere, urriaren 7an Odietako Santurbe baselizan izan genuen bertso saio musikatu ederra ikusteko

aukera dugu ondoko bideoan. Bi Ahizpak Bideo ekoiztetzeko Aritz Gorostiaga lagunak egin ditu grabaketa eta muntaketa lanak. Maialen Lujanbioren, Nerea Ibarzabalen eta Julio Sotoren bertso sorta ederrak galtzeko aitzakiarik ez dago!

youtubeko bideoa ▶



Irratiko kontuez gain, agenda, Pulunpe aldizkariak...

Eta, gogoratu, eskualdeko ekimenen agenda kultural eguneratua ere badugula! Amezti.eus/agenda atalean aurkituko dituzue udalerriz udalerriz dauden ekimenen zerrenda. Bestetik, ez ahaztu, Pulunpe aldizkariak PDFn irakurtzeko aukera ere badagoela webgunean.





Ostiral kulturaletako eraikuntzarako materiala

Haurren beldur den munstro bat eta gaiztakeriarik egiteko gai ez den sorgin bat hurbildu ziren gurera urriaren amaieran; gero, azaroaren hasieran, Europan zehar nola bidaiatu, non lo egin, zer jan... ikasi genuen David Torres Palacios gaztearen eskutik... Eta, orain, udazkenean erabat sartuta, pasa den apirilean bertan behera geratu zen liburu baten aurkezpena berreskuratuko dugu. Ez da, gainera, edozein liburu, ez, Amets Arzallus hurbilduko da Larrantzarrera, ziur aski, azken urteotako euskal literaturako libururik salduen eta irakurrienarekin.

MIÑANek anaia txikia esan nahi du

Miñan eleberriaz ari gara, bai.

Liburua Ibraima Balde afrikar emigrantearekin batera idatzitakoa da. Honek bere istorioa kontatu zion Ametsi; eta, liburuak Ibraimak Afrikan zehar anaia txikiaren bila egin zuen bidaia kontatzen du (hain


zuzen Ibraimaren hizkuntzan hitz horrek, Miñan-ek, anaia txikia esan nahi du). Urteak iraun zuen bidaia horretan Europan iritsi aurretik Ibraimak jasan zituenak kontatzen dizkigu –gosea, arrazakeria...-. Egia esan, Europan etortzen diren etorkin askok egiten duten bidaia bera da, guk sarritan ezagutzen ez duguna, patera bat hartu eta hona iristen direla pentsatzen dugu; baina hori baino lehen Afrikan barrena egiten den bidaia luze hori dute, beren bizimodua, familia eta lagunak atzean utzita.

Amets Arzallusek Irunen ezagutu zuen Ibraima, emigranteei laguntzeko sare batean, non Amets boluntarioa den. Hasiera batean, nobela hau Ametsek Ibraimarentzat babes politikoa eskatzeko egiten ari zen txosten bat zen, baina kontatzen ziona eta kontatzeko modua hain ziren harrigarriak, eleberri arrakastatsu eta hunkigarri bihurtu baitzen. Oraindik irakurri ez duen norbait geratzen bada zinez gomendatzen dugu.

Liburuaren aurkezpena **azaroaren 10ean, 19:00etan**, izanen da, Larrantzarko gizarte etxean.

MOBY DICK bertsio berri bat, familia osoarentzat

Hurrengo astean, azaroaren 17an leku eta ordu berean, familia osoarentzako antzezlan batez gozatzeko aukera izanen dugu. MOBY DICK. Eleberriaren bertsio honetan itsas zabaleko itsasontzi bateko tripulazioaren parte izatea bilatuko dugu, gure istorioko pertsonaiak ezagutuko ditugu, abestiak abestuko ditugu, itsasoaren eta ozeanoaren edertasunaz gozatuko dugu, eta istorio izugarri honekin eta azken amaierarekin lotuko gara... Ez galdu!





Material desberdinez baliatuz (eta hortik dator izenburua, Eraikuntzarako materiala) idazten du nobela Eider Rodriguezek, alde batetik, Eiderrek berak bere ikuspuntua, esperientzia pertsonala, lehen pertsonan kontaktzen du (adibidez aita alkoholiko bat edukitzeagatik izandako lotsaz ari denean) eta beste alde batetik, esate baterako, aitik bere emazteari, Eiderren amari, soldaduska egiten ari zela bidali zizkion gutun batzuk aurkituko ditugu. Modu horretan, aitaren ikuspegia ere ikusten dugu.

Intentsitate handiko liburua, beraz. Guk, potente hitza erabili dugu. Eta duela hilabete batzuk Joseba Sarrionandia gurera etorri zenean, barbaroa esan zuen. Sarrionandiak esan zuen euskal literaturak barbaroak behar zituela, euskal literaturako hizkuntza eta gaiak astinduko zituzten idazleak, eta jartzen zuen adibideetako bat Eider Rodriguezena zen, eta liburua hau, hain zuzen ere. Oso liburua biluzia eta ausarta, azken batean. Barbaroa.

Emakumeen kontrako indarkeriari stop!

Azaroaren 25a emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteko nazioarteko eguna da eta hori dela eta, aste horretako ostiral kulturalean, "Patriarcado, el organismo nocivo" dokumentala ikusiko dugu. Dokumental honetan, lau emakume boteretsuk beren istorioak kontaktzen dituzte. Baina, hausnarketarako gaitasun handiarekin, indarkeria matxistari buruzko begirada harrigarria partekatzen dute, indarrez, biktimizaziorik eta paternalismorik gabe.

Zalantzarik gabe, gai interesgarria eta kezagarria, hurrengo astekoa (abenduaren 3an) bezala: Asier Blas etorriko da Ukrainako gudari buruz hitz egitera. Euskal Herriko Unibertsitatean lizentziatua eta doktoratua da, Politika eta Administrazio Zientzietan, eta Parte Hartuz ikerketa taldeko kidea. Gure zalantzak eta galderak argitzera dator.

Eider Rodriguez, barbaroa

Bukatzeko -eta gai potenteekin jarraituz- beste liburu baten gomendioa egin nahi dugu, berriki irakurri duguna gure euskarazko irakurle klubean: Eraikuntzarako materiala. Oso liburua potentea, bai. Hori da, gure ustez, Eider Rodriguezen nobela hau deskribatzeko hitza. Potentea. Eta ausarta ere bai.

Liburu honetan, eleberri honetan, protagonistak (egilea bera identifikatzea ez da zaila protagonista horretan, ez du disimulatzen Eiderrek, nahiz eta literatura-lizentziak hartzen dituen) bere aita alkoholikoarekin duen harremana kontaktzen digu. Liburua egilearen aita hil ondoren idatzia dago eta Eider Rodriguezek esan du ezin zitekeela bestela izan, baina, aldi berean, bitxia bada ere, arazo horiek guztiak, aitarekiko distantzia hori guztia, kontaktzen diren arren, maitasun-gutun moduko bat bihurtzen da, edo bizitzan posible izan ez den hurbilketa bat.

 **Patxi Irurzun,**
Ultzamako liburutzaia



2023ko irailean

2023ko irailean gure alderdian izan diren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak

Jaiotzak:

ANUE Aritzu

Jare Mariñelarena Telletxea,
Luxenean sortua irailaren 9an. Iñaki
eta Noeliaren alaba.

“ Zorionak
gurasoei ”



▲ Nexkatoa ekarri dute Luxenean

Ezkontzak:

Guk dakigula, irailean ez dugu
ezkontzarik izan.

Heriotzak:

ANUE Aritzu

Maria Jesus Ilarregi Egozkue,
Mixeleneko alaba, irailaren 10ean hil
zen 92 urtetan.

ATETZ Beuntza

Agueda Altuna Eritze, **Ezkerneko**
etxeoandrea, irailaren 13an hil zen,
94 urtetan.



▲ Beuntzako Agueda Altuna

BASABURUA Aizarotz

Fran Etxeberria Aizkorbe, irailaren
24an hil zen, 60 urtetan. Oharra: Azken
urteak artio Iraizotzen bitutakoa
dugu Fran.



▲ Fran, ezkerrean, Ana emaztearekin, Iraizozko
ostatuko atean.

IMOTZ Urritza

Jose Angel Aldatz Fernandez,
Azpikoetxeko semea, irailaren 5ean
hil zen, 70 urtetan.



▲ Joxe Angel Aldatz

ULTZAMA Iraizotz

Lucia Goñi Olague, **Beitikoetxeko**
(**Barberia**) etxeoandrea, irailaren
23an hil zen, 97 urtetan.



▲ Luzia Goñi

Maria Dolores Mugiro Urkiola,
Alkotzaldeko etxeko etxeoandrea
irailaren 29an hil zen 97 urtetan.



▲ Dolores Mugiro

“ Zuen maitasuna,
gelditzen zaiguna. ”

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK
PROYKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK

KARRIKOLAR
ELEKTRIZITATEA



629 31 53 32 · 722 766 835

LIZASO · karrikolaregoitz@gmail.com

**GOTELET-A
KENTZEA**

**FATXADAK
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)**

DAVID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA
ETA
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE**

678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com





2023ko Zozketa mundiala

Sarien zerrenda



x3

Asteburuko bidaiak
2 lagunentzat



x3

Elgorriagako bainu
etxean asteburuko
egonaldiak



x2

Landetxetan
egonaldiak




x18

Bazkari edo afari
bikoitz (inguruko
ostatuetan)



x10

Txerri gizen



x10

Axuri eder

8 Esneki sorta
30 Saskitto
25 gazta
Eta... beste anitz sari